

Politika publikoak goitik behera aldatu eta hemen erabakitzeko aldarria atera du kalera LABek

Euskal Herriko zerbitzu publikoen egoera onartezintzat jota, sindikatua Bilbon mobilizatu da gaur, azken hilabeteotan eginiko grebei eta borrokari segida emanez.

Eliptika plazatik abiatu eta Arriaga plazaraino joan dira manifestazioan zerbitzu publikoetan diharduten langileak nahiz hainbat herritar erabiltzaile. LABek udazkenean abiatu zuen borrokaldia beste sindikatuekin bat egin da, eta bitarte horretan hiru greba egun eta hainbat mobilizazio egin izan ditu EAEn, Greba Feminista Orokorraz gain. Bada, aldarrikapenen funtsak bere horretan dirauela eta, gaurkoan ere kalera ateratzeko hautua egin du LABek.

Sindikatuako koordinatzaile orokor Igor Arroyok gogorarazi du aipaturiko grebak dietu zirenean Eusko Jaurlaritzako arduradunak deialdia indargabetzen saiatu zirela, mobilizazioetarako arrazoi nahikorik ez omen zegoela argudiatuta. Aldiz, oraingo hauteskunde kanpaina gai nagusietakoa da Osakidetzako eta, oro har, zerbitzu publikoetako egoera. Orain arte arazoa ukatu duten EAJ eta PSE ere hasi dira kezka adierazten.

Bada, horrek aurrean, Arroyok bi gauza eskatu dizkie: batetik, aitortzea langile publikoek nahiz zerbitzu publikoak ematen dituzten gainerako langileek arrazoiak sobera dituztela mobilizatzeko, eta bestetik, dagozkien erantzukizun politikoei behingoz heldu diezaietela. Izan ere, pribatizazio eta murrizketa politikek eragin dute zerbitzu publikoen gainbehera.

Hala, hurrengo legegintzaldia mugari izan behar da LABen ustez, eta orain arteko politika pribatizatzaileak alboratu eta zerbitzu publikoak indartzeko apustu estrategikoa egin beharra dago.

Bada, apustu horrek hiru ardatz izan behar ditu: lehena, zerbitzuen antolaketari eta lan baldintzei dagokienez Euskal Herrian erabakitzea, inposaketarik gabe; bigarrena, zerbitzu publiko indartsuak izatea eta pribatizatuta dauden eremuak (zaintza, kasurako), publikatzea; azkenik, langile publikoekin eta zerbitzu publikoak ematen dituzten azpikontrataturako langileekin elkarrizketa eta akordioak bilatzea, aldebakartasuna alboratuta.

Sindikatuaren esanetan, Euskal Herrian badira baldintzak gure zerbitzu publikoak eta bertako langileon baldintzak guk geuk erabakitzeko, eta horren alde gogor borrokatu beharra dago, eredu neoliberalari aurre egin eta politika publikoak eraldatzeko.

Euskal Herrian, 2024ko apirilaren 18an